

10. GAIA Biztanleriaren ezaugarri ekonomikoak

10.1 - Jarduerarekin erlazionatutako kontzeptuak

10.2- Jardueraren neurriak

10.3- Biztanleriaren jardueraren araberako egitura

10.1- Jarduerarekin erlazionatutako kontzeptuak

- Aktiboak: Ondasunak eta zerbitzuak produzitzeko lan bat ekartzen duten pertsona guztiak dira, bai eta momentu horretan enplegurik ez dutenak, baldin eta bila badabilta eta lan egiteko prest badaude ere.
 - Langabeak: enplegu alokatu bat edo enplegu beregain bat ez duten eta gaur egun enplegu bila dabilta eta lan egiteko prest dauden pertsona guztiak dira.
 - Landunak: Enplegu ordaindu bat duten edo jardura beregain bat daramaten eta lanean dauden, edota, lanik gabe egonik ere, beren enpleguarekin lotura formal bat daukaten pertsona guztiak dira.
- Ez-aktiboak: Aktiboak ez diren pertsona guztiak dira. Honako talde hauetan sailkatzen dira: etxeke lanak egiten dituzten pertsonak, ikasketak egiten ari direnak, erretiratuak, pentsiodunak, errentadunak eta ezgaituak

Lanbide egoera

- Norbanakoak nolako lan-harreman duen lan egiten duen enpresarekin; edo, aurretik lan egin duten langabetuen kasuan, azken enplegua izan zuteneko enpresarekin.
Honako talde hauek daude:
 - Alokatuak dituzten enplegataileak eta enpresaburuak.
 - Langile autonomoak, beregainak edo alokatuak ez duten enpresaburuak.
 - Famili laguntzak
 - Kooperatiba-kideak
 - Sektore publikoko alokatuak; sektore pribatuko alokatuak
 - Aurrekoetan agertzen ez diren beste egoera batzuk.
 - Kooperatiba-kideek eta sektore publiko eta pribatuko alokatuek alokatuen taldea osatzen dute; gainerakoak, berriz, ez-alokatutzat jotzen dira.

Jardueren Sailkapen Nazionala

- http://www.ine.es/daco/daco42/clasificaciones/nota_epa_cno11.pdf
- http://www.ine.es/inebmenu/mnu_clasifica.htm

10.2- Enpleguaren neurriak

- Jarduera-tasa globala: biztanle guztien artean okupatuta dauden pertsonen ehunekoa.

$$\text{Jarduera - tasa globala} = \frac{\text{Aktiboak}}{\text{Populazioa}} \cdot 100$$

- Jarduera-tasa: 16 urte baino gehiago dituztenen artean okupatuta dauden pertsonen ehunekoa.

$$\text{Jarduera - tasa} = \frac{\text{Aktiboak}}{\text{Populazioa}_{>16}} \cdot 100$$

10.2- Enpleguaren neurriak

- Jarduera-tasa espezifiko: adin jakin bateko aktiboen proportzioa adin horretako biztanlearekin konparatuta.

$$\text{Jarduera - tasa espezifiko} = \frac{\text{Aktiboak}_{x,t}}{\text{Populazioa}_{x,t}} \cdot 100$$

- Okupazio-tasa: Aktibo guztien artean okupatuta dauden pertsonen ehunekoa.

$$\text{Okupazio - tasa} = \frac{\text{Okupatuak}}{\text{Aktiboak}} \cdot 100$$

Enpleguaren neurriak

- Langabezia-tasa: Talde jakin batean langabezian dagoen biztanle aktibo kopuruari esaten zaio langabezia tasa. Ehunekoetan ematen da.

$$\text{Langabezia - tasa} = \frac{\text{Langabeak}}{\text{Aktiboak}} \cdot 100$$

- Iraupen luzeko langabezia-tasa: Iraupen luzeko langabeak (12 hilabetetik gora), 15 urtetik 64rako guztizko biztanleria aktiboaren ehunekoarekin alderatuta.

$$\text{Iraupen luzeko langabezia - tasa} = \frac{\text{Langabeak} > 1urte}{\text{Aktiboak}} \cdot 100$$

10.3- Biztanleriaren jardueraren araberako egitura

- Jarduera motaren arabera, sailkatu ahal dugu populazio aktiboa edo okupatua:
 - Sektorearen arabera:
 - Primario
 - Sekundarioa
 - Terziarioa
 - Ardatz ekonomikoaren arabera: Nelson Indizea

$$N_{i,j} = \frac{a_{i,j} - m_j}{T_j}$$